

Hezkuntza Nazionalak lehiaketa irekiko du eskola elebidunetako irakasleentzat

Aterabide iraunkor bat bilatuko du euskarazko irakaskuntza garatzeko

Lutxi Fourcade / Baiona

Claude Allegre Hezkuntza ministroak jakinarazi du lehiaketa berezi bat irekiko duela 1999ko irailean eskola elebidunetako irakasleak integratzeko. Era berean, hitzeman du epe luzerako aterabidea gogoetatuko duela irakasleen beharra estaltzeko.

HITZEMAN bezala, Jean Espilondo diputatu sozialistak galdegin dio Claude Allegre Hezkuntza ministroari aterabidea aurkitzea eskola elebidunetako irakasle ugarientzat. Izan ere, 75 irakasletik 42 langilek behin-behineko estatutua dute. Urte guziz, Hezkuntza Nazionalak kontratua eraberritzen die, aterabide irankorrik proposatu gabe.

Jean Espilondok galdera pausatu du joan den asteartean Parisko Asanblada Nazionalean, eta Jean Pierre Masseret ministroaren laguntzaileak berehala erantzun zion Espilondori. Egoera argitzeko beharra berretsi zuen Allegre bozeramaileak. «42 irakasletatik 36 irakaslek betetzen dituzte irakasle izateko baldintzak, eta lehiaketa bat gaingitu beharko dute irailetik goiti», gaineratu zuen. Hain zuzen, beste toki batzuetan eginga izan den bezala, Hezkuntza ministroak antolatuko du lehiaketa



BOB EDMÉ

Irakasleen okupazioa Uztaritzen. 30 bat irakaslek okupatu zuten Akademiako ikuskariaren bulegoa atzo goizean Uztaritzen. Beren aburuz, mobilizazioak jarraitu beharko dira irakasle guztien integrazioa erdietsi arte. Hain zuzen, irakasleen egoera konpontzea hitzeman arren, Hezkuntza Nazionalak baldintza zorrotzak pausatu ditu. Lau urteko esperientzia eskatzeaz gain, ez du adierazi zenbat irakasle integratuko dituen.

berezia Euskal Herrian. Hiru sesio antolatuko ditu: 1999an, 2000an eta 2001ean. Era berean, irakaskuntza elebiduna garatzeko esperantzaz, elkarrizketa zabala bultzatuko du aterabide iraunkorra aurkitzeko.

Ministroaren erantzuna «interesgarritzat» jo zuen Ikas

Bi eskola elebidunetako gurasoen elkarteak. Izan ere, lehen aldikotz, Frantziako Gobernuak proposamen zehatzak egiten ditu irakasleen egoera konpontzeko. Era berean, elkarteak azpimarratu du «elkarrizketaren beharra arazo mingarriak konpontzeko». Izan ere, nahiz eta gober-

nuak sistema garatzeko nahiak berretsi, euskarazko postu bat kentzeko mehatxua dago Baionan. «Sarako eta Baionako eskolen egoera berdintsua da, eta zuzengabetsunezko erabakia aplikatuko da Baionan», esan zuen Thierry Delobel Ikas Bi elkarteko lehendakariak.



MIKEL UHARTE

NUPeo hauteskundeak.

Normaltasuna izan zen nagusi atzo Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin ziren hauteskundeetan, eta goizeko 10etatik aurrera horretarako prestatutako lau hautesontzietan parte hartzea etengabekoa izan zen egun osoan. Atzo iluntzean artean ez zen emaitzen berririk, eta azken datuak gaua ondo sartuta iritsiko zirela uste zuten bertan.

Pertsonak ez direla legez kanpokoak aldarrikatuko du SOS Arrazakeriak elkarteak Bilbon bihar

■ «Bidegabekeria» hori dela medio oinarritzko eskubideak ukatzen zaizkiela salatu du

Gorane Agirre / Bilbo

PERTSONAK ez direla legez kanpokoak aldarrikatuko du SOS Arrazakeria elkarteak bihar arratsaldeko 20:00etan Bilbon egingo duen manifestazioan. Era berean, «paperak ukatu eta horrela legez kanpoko bihurtzearen ondorioz, etorkinei oinarritzko eskubideak ukatzen zaizkie», elkarteak salatu duenez.

Arrazakeriaren kontrako Nazioarteko Eguna iragan larunbata izan bazen ere, Bilbon izan zen beste manifestazio bat dela medio SOS Arrazakeria elkarteak bihar arte atzeratu zuen egun horretarako antolatua zuen manifestazioa. Berau Arriaga plazatik aterako da bihar, arratsaldeko 20:00etan.

Atzeritarren Legea

«Atzeritarren Legea bezalako araudiei egotzi behar zaie pertsona hauei legez kanpoko titulua egostearren erantzukizun osoa. Honelako araudiak dira paperak deiturikoak lortzea asko zailtzen dutenak eta arbitrariedade lege balio gisa dutenak», azaldu zuten elkarteko kideek.

Paperak ukatu eta «erabateko bidegabekeriak» gizabanakoak legez kanpoko bihurtzearen ondorioz, etxebizitza, lan, osasun eta hezkuntza bezalako oinarritzko eskubideak ukatzen zaizkiela esan zuten.

Era berean, etorkizuna ez dela batere hobea adierazi zuten; izan ere, 1998ko uztailaren lehen Austriako lehendakariak Europar Komunitateko Justizia eta Barne Kontseiluari aurkeztu zion Migrazioa eta Asiloari buruzko estrategia txostenean Komunitatearen kanpo mugak gehiago sendotzea aurreikusten zuten eta. Esan zuten, «kriminalizatu egiten ditu legez kanpoko etorkinak, mugak igarotzen laguntzen dituztenak, eta helmugako lurraldeetan babesa ematen dietenak».